



*Eusko Lehendakaria*

*El Lehendakari de Euskadi*

2021 JUL: 27

SARRERA	IRTEERA
Zk. —	Zk. 734

Vitoria-Gasteiz, 27<sup>th</sup> July 2021

**Mr. Mukelani Dimba**  
**Head of Development**  
**International School for Transparency**

Dimba jaun agurgarria:

Euskal Autonomia Erkidegoaren ordezkari gorena naizen heinean, eta gure herriko erakundeen hiru mailen izenean (Eusko Jaurlaritza; Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiak; Bilboko, Donostiarra eta Vitoria-Gasteizko udalak), adierazi nahi dizut OGP Local Programan parte hartzen jarraitzeko borondatea eta asmo osoa dugula. Jakin dakizunez, gobernu irekiaren oinarrietatik abiatzen den baterako hautagaitza da gurea, Euskadi giza garapen iraunkorrari begira eraikitzen jarraitu eta 2030 Agenda ezartzen aurrera egiteko.

2018an Open Government Partnership (OGP) sarean sartu gineneko interes eta gogoa areagotu egin dira. Esperientzia benetan aberasgarria izan da. Izan ere, gure lurraldoko gobernuen jarduera elkarlanean egin beharreko prozesu gisa bizi izan dugu, bakoitzak bultzatzen dituen baliabideen bitartez partekatutako balio publikoa sortuaz.

Euskadin gobernu irekiaren gakoa gogoan hartuta lan egiten ari gara. Gure erakundeek dagoeneko Gobernu Irekiaren planak eta parte hartzeko erantzukizun estrategiak garatu dituzte. Baino, bada bereziki azpimarratu nahi dudan zerbait: elkarlanean, eskutik helduta, egiten ari gara.

OGP Euskadiaren 2018-2020 lehenengo Ekintza Plana landu eta gauzatzea erronka handia eta aberasgarria izan da. Gainera, egindako ebaluaketa parte hartzalearen emaitzek erakusten duten moduan, arrakastatsua izan da ezarritako antolaketa ereduari, konpromiso bakoitzaren exekuzio mailari eta OGP Euskadi webguneak eskaintzen duen informazioari dagokionez.

Dear Mr. Dimba,

As the highest representative of the Basque Country, and on behalf of the three levels of institutional bodies in this land (Basque Government; Provincial Councils of Alava, Bizkaia and Gipuzkoa; and City Councils of Bilbao, San Sebastián and Vitoria-Gasteiz), I would like to express our full willingness and intention to continue participating in the OGP Local Program. As you know, ours is a joint candidacy based on the principles of open government, to continue building the Basque Country with a view to sustainable human development and moving forward with the implementation of the 2030 Agenda.

Our interest and enthusiasm for joining the Open Government Partnership (OGP) network in 2018 has increased. It has been a rewarding experience. In fact, we have experienced the activity of the governments of our territory as a collaborative process, creating a shared public value through the resources that each of us promotes.

In the Basque Country we are working with the key to open government in mind. Our organizations have already developed Open Government plans and participatory accountability strategies. But, there's one thing I especially want to emphasize: we're working together, holding hands.

The elaboration and implementation of the first Action Plan 2018-2020 of the OGP Euskadi has been a great and enriching challenge. In addition, as the results of the participatory evaluation show, it has been successful in terms of the organizational model established, the level of execution of each commitment and the information provided by the OGP Euskadi website.

.../...



.../...

Bereziki azpimarratuko nuke esperientzia eta ebaluazio hau bultzada bat izango direla gobernuen jarduna irekitzeari dagokionez ikasten eta berrikuntzan aurrera egiten jarraitzeko eta, azken finean, arlo desberdinako politika publikoetan txertatzeko.

Esan bezala, Euskadi dagoeneko lurralteko irekia da baina are irekiagoa izatea nahi dugu. 2021-2024 epealdiari begira landutako ekintza-plan berriak herritarren esperientzia, ezagutza eta proposamenak ekintza publikoan txertatu nahi dituen gobernu irekiaren euskal eredu bat aurrera ateratzea du helburu. Horregatik guztiagatik, berretsi egiten dugu 2018an Gobernu Irekiari dagokionez hartu genuen konpromisoa.

Adeitasunez agurtzen zaituzte,

In particular, I would like to emphasize that this experience and assessment will be an impetus for governments to continue to learn and innovate in terms of opening up government action and, ultimately, to integrate it into public policies in different areas.

As I said, the Basque Country is already an open territory, but we want it to be even more open. The new action plan for the period 2021-2024 aims to develop a Basque model of open government that seeks to incorporate citizens' experience, knowledge and proposals into public action. For all these reasons, we reaffirm our commitment to Open Government in 2018.

Sincerely,

Iñigo Urkullu Renteria  
Lehendakari (President) of the Basque Country